



KOMISARIOTZAKO PROIEKTUA DEIALDIAREN EBAZPENA

2023ko abenduaren 21ean, Komisariotzako proiektua egonaldi deialdia argitaratu zen Tabakaleraren webgunean, arte garaikideko departamentuaren bidez, komisarioei erakusketa-proiektu bat garatzen lagundu eta proiektu hori 2025. urtearen hasieran, Tabakalerako 2. Erakusketa-aretoan egiteko helburuarekin.

Aipatutako oinarrien 4. atalean aurreikusitakoarekin bat etorritik, batzorde bat eratu zen, Clara Montero, Ane Agirre, Jone Uriarte eta Laida Mendiak osatuta, deialdira aurkeztutako proiektuak baloratzeko.

Batzordeak garaiz eta behar bezala aurkeztutako proiektuen balorazioa egin du, egonaldia lortu nahi duten proiektuak hautatzeko oinarrietan ezarritako irizpideekin bat etorritik, eta CICC/Tabakalerako zuzendari nagusiak, aipatutako batzordeak proposatuta, honako hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- I. eranskineko taulan zerrendatutako pertsonak Komisariotza proiektua egonaldian parte hartzeko aurkeztutako proiektua hautatzea, deialdiaren oinarrietan jasotako baldintzetan.

Bigarrena.- Hautatutako proiektuari honakoa eskaintzea:

1. Bidaia eta ostatua:
 - a. 1. aukera:
 - i. Joan-etorriko bidaia bat, bizitokitik edo egonaldiaren aurretik dagoen lekutik, adjudikaziodunak hala nahi izanez gero.
 - ii. Logela bikoitza banako batentzat, komuna, lanerako toki txiki bat eta wifi konexioa barne; sukalde eta egongelaren erabilera partekatua Eremu komun horretarako sarbidea zentroak ezarritako erabilera-arauek eta indarrean den osasun-egoerak arautu ahal izango dute.
 - b. 2. aukera: egonaldiaren hilabete bakoitzeko 500 euroko laguntza gehienez, garraio-kontzeptu gisa.
2. 1.000 € garbi egonaldiaren hilabete bakoitzeko, dieta eta mantenu gisa. Dirua txeki izendunaren bidez entregatuko da. Kopuru horri zerga-atxikipena aplikatuko zaio, egoiliar bakoitzaren egoera fiskalaren arabera. Horretarako, dagokion dokumentazioa eskatuko da (036 eredu Espainian bizi direnentzat, eta zerga-egoitzaren ziurtagiria atzerrian bizi direnentzat).
3. Lan-estudioa Tabakalerako artisten espazioan: oinarritzko altzariak, korrante elektrikoaren hargunea eta argiztapena.
4. Sarbidea office-ra eta espazio komunitarioa.
5. Sarbidea Tabakalerako liburutegiko sorkuntza espezializatuei buruzko funtsetara eta Medialabeko baliabideetara.
6. Sarbidea irudi eta soinuaren edizioko estudioetara, praktika eszenikoetarako plato edo espazioetara eta ikus-entzunezko baliabideetara maileguan.
7. Tabakalerako lantaldearen baliabide teknikoak eta laguntza, beharrezan eta erabilgarritasunaren arabera.
8. Laguntza kontzeptuala ematea proiektuaren garapenean, eta, egoiliarrek hala eskatzen badu, laguntza ematea testuinguruko eragile eta proiektu desberdinak sartzeko.
9. 10.000€ partida bat (zergak eta atxikipenak kenduta) ekoizpen artistikoko gastuetarako, horrela banatuta: 4.000 € ordainsari gisa artistarentzat edo erakusketan parte hartzen

TABAKALERA



duenarentzat, 6.000€ obra ekoizteko. Diru-kopuru hori Tabakalerak kudeatuko du, hautagaiarekin aurrekontua onartu ondoren.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, S.A.ren webgunean argitaratzea eta aukeratuei jakinaraztea.

Donostian, 2024ko martxoaren 15ean

Edurne Ormazabal Azpiroz
Zuzendari nagusia



1. ERANSKINA

IZENAK	ABIZENAK
GARAIZI, IVÁN	PASCUAL, GÓMEZ